



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

2020eko ekainaren 4an, 08:00etan, ezohiko bilkuran elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. HERRIKO OSTATUKO ALOKAIRUAREN KONTRATU LUZAPENA.

Udalburuak azaldu du, Herriko Ostatuko errentatzaileekin izandako bileren ondoren, kontratua 2022ko inauteriak pasatu arte luzatzeko erabakia hartu zela. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **erabaki du**:

Alde 4
Abstentzio 3

1.- Kontratua 2022eko otsailaren 6a arte luzatzea, eta kontratua sinatzeko Udal ordezkari Alkatea den Ernesto Domínguez Olea jauna izendatzea.

2.- Akordioa interesdunei jakinaraztea.

Eta bertzerik ezean, 08:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.